

Lagun hori:

Enpleguari buruzko gure kanpaina sustatzen laguntzeko eskatu nahi dizugu Ez da Caritasen kanpaina bat gehiago, aldi berean salatzea eta proposatzea ahalbidetzen digun ohartarazpena baizik. **Enpleguaren duintasunean sakondu nahi dugu, duintasuna ematen duen enpleguan.**

Kristau komunitatetik gizarteari erakutsi diezaiokegu gauzak beste modu batean egin daitezkeela, harremanetarako beste era bat planteatu.

Kanpaina lelo honekin abiatu dugu: **“LAN DUINA, JUSTIZIAREN MUINA EGOKI BIZITZEKO ADINA”**, POSIBLEa dela sinesten dugulako.

Francisco Aita Santuak berak hauxe dio: *“lan askean, sortzailean, parte-hartzaile eta solidarioan, gizakiak bizitzako duintasuna adierazi eta areagotzen du”* (EG-192).

Horregatik, gure ustez, **enplegua** ez da gure bizi-proiektuei eusteko etekin ekonomiko soila, baizik eta gure gaitasun eta potentzialak garatzeko, pertsonekin harremanak izateko, sare baten parte izateko eta gizartearen parte aktibo sentitzeko **ezinbesteko lekua**. Berdintasun elementua da. Zentzua ematen digu eta gizarteratzerako giltza bihurtzen da. Langabeziak sakon eragiten du pertsonengan, oinazea sortu, konfiantza hautsi, etorkizunean segurtasun falta eta etsipena eragiten du.

Hala ere, enpleguaren ikuspuntu horrek ez digu begien bistatik kentzen arreta jartzeko beharra, bai kontratazio prozesuetan, bai **lan baldintza duinetan**, bai egindako lanaren aitorten ekonomiko egokian.

Gizarte ekonomiaren zenbait formulek eredu ezberdina proposatu eta horren alde lan egiten dute. **Helburu eraldatzailea duten benetako aukerak** eskaintzen dizkigute gizarte enpresek, gizarteratze kooperatibek, zailtasunetan dauden taldeentzako autoenplegurako ekimenek, tokiko kontsumorako proposamenek, bidezko merkataritzaren aldeko apustuek, banka etikoak....

Eta nik, zer egin dezaket? galderaren aurrean, Caritasek aukera batzuk proposatzen ditu:

- Soldatapekoa/pentsioduna bazara: eman zure soldatako egun bat hilean eta lagundu iezaguzu lana sortzen.
- Enpresaria bazara: kontratazio “soziala” aztertu.
- Administrazioari klausula sozialak, gizarteratzeko enpleguak, enplegu politika inklusiboak eta bestelakoak sustatzea.
- Kristau elkarteak eskatzen dizue Ondasun Kristauen Komunikazioan parte hartzeko eta kanpaina hau zuen inguruan zabaltzen laguntzeko.

Lan duina, justiziaren muina, posiblea da.

Aurrera! Besarkada bat:

Carlos Bargos
Zuzendaria



Campaña del 6 de abril de 2014

Estimado amigo, estimada amiga:

Queremos proponerte que nos ayudes a impulsar nuestra **campaña sobre el Empleo**. No es una campaña más de Cáritas, es una llamada de atención que nos permite denunciar y proponer a la vez. **Buscamos profundizar en la dignidad del empleo, en el empleo que aporta dignidad.**

Desde la **comunidad cristiana** podemos demostrar a la sociedad que es posible hacer las cosas de otra manera, plantear otras claves en nuestra forma de relacionarnos.

Lanzamos esta campaña con el lema: **“CREA otro EMPLEO, AL SERVICIO DEL BIEN COMÚN, INTEGRADOR, DIGNO”**, convencidos de que ES POSIBLE.

El propio Papa Francisco nos indica que *“en el trabajo libre, creativo, participativo y solidario, el ser humano expresa y acrecienta la dignidad de su vida”* (EG-192).

Por eso, entendemos el **empleo** no sólo como el ámbito en el que las personas obtenemos un rendimiento económico que sostenga nuestros proyectos vitales, sino como **espacio esencial** en el que desarrollamos nuestras capacidades y potencialidades, nos relacionamos con otras personas, formamos parte de redes y donde nos sentimos necesarios como parte activa de la sociedad. Es un elemento de igualdad que aporta sentido y se convierte en una llave de integración social. La falta de empleo afecta profundamente a las personas, genera dolor, quiebra la confianza, provoca inseguridad y desesperanza en el futuro.

Esta perspectiva del empleo no nos hace perder de vista la necesidad de máxima atención a los procesos de contratación, a las necesarias **condiciones laborales dignas** y al reconocimiento económico adecuado a la labor realizada.

Existen fórmulas de economía social que proponen y trabajan por un modelo distinto, empresas sociales, cooperativas de inserción, iniciativas de autoempleo con colectivos en dificultad, propuestas concretas de promoción del consumo local, apuestas por el comercio justo, la banca ética... que nos ofrecen **opciones reales desde un fin transformador.**

Ante la pregunta habitual: **¿y yo, qué puedo hacer?**, proponemos desde Cáritas algunas alternativas:

- Si eres una persona asalariada/pensionista: aporta un día de tu salario o pensión al mes durante un año y ayúdanos a crear empleo.
- Si eres persona empresaria: plantéate hacer una contratación “social”.
- A la administración le invitamos a promover cláusulas sociales; empleos de inserción; políticas de empleo inclusivas...
- Como comunidad cristiana os pedimos que participéis de la Comunicación Cristiana de Bienes (CCB) y que nos ayudéis a difundir esta campaña en vuestro entorno.

Lan duina, justiziaren muina, posiblea da. Es posible **enfocar el empleo desde claves de justicia.**

¡Animo! Un abrazo:

Carlos Bargas
Director